

Bastida

Amamengandik bilobengana



Arabako Herriak

BAS TI DA





Bastida

Lur emankorrez inguratua, neguko hotzak baretzen dituzten mahastiez orobat, udan alaitasun emangarri, hurrengo uztaren aldarrika, Bastida hiribildu noblea da, mazala da guztiz ere.

Haren kale, karrika, etxe nagusi handiki jaunen jaurgoetako harri landu, antzinako zizelen kantuen hotsa adiarazten digutenek, herri sendo, historiaz eta kondairaz betea erakusten dute.

Nekazari, lugin, landatarren handitasuna da, noblezia baina bonbazia bagea, mazaltasuna da, etorlea lilurutzen duena. Bertakoak dira, herritarrak, harrizko horma gotor hauetako etxandi zaharrotan bizi direnak dira lurra lantzen eta ardantza laztantzen dutenak.

Haien eskuetatik eta haien langintza ohituraz betetik iristen dira mahaietara ardorik onenak. Ardo oneko lurrik bada, hauxe da, Ebro ibai eta Toloño mendiaren artean arterik ez antzea bai, bai kaleetan bai mahastietan.

National Geographic aldizkariak Euskadiko 10 herririk politenetan Bastida hautatu du.

Lehen orrialdea, José Ignacio Zuñigak utzitako argazkia

*2. orrialdea: Bastida hiribilduko ikuspegia, hego-ekialdetik. 1940-1960
Argazkilaria: López de Guereñu. Photo-Araba*





Eulalia eta adiskide batzuk Toloñoko arkuari argazkitarako jarriak

Amamarengandik
bilobarengana
Lehen eta orain

Eulalia
Oribe-
rekin

Bastida



“

*Yo a espergurar,
a desnietar y a
vendimiar. Morisca
no hacía”*





Ardantzako hizkera berezia

▲ *Eulalia ahizpekin Bastidako eskolan
1957-1958. ikasturtea*

◀ *1900-1915. Gizon batzuk mahastie-
tan lanean, Mugako San Andresen
komentu frantzikotar zaharraren
ondoan, Bastidako hirigunetik
kilometro batera hegoaldean
Argazkilaria: Oñate Reynares.
Photo-Araba*

Bastidan bizi izan denak “espergurar” eta bestelako hitz berezi batzuk ezagun ditu, alegia, mahatsondoan dagoen orri eta zikinkeriak kentzeari hala esaten baitzaio. “Desnietar” ere esaten diote aihenari alperrik sortzen zaizkion ernemuinak kentzeari, edo “la morisca” lanabes bat dela badaki hemengo denak, ardantzan hazten diren belarrak jorratzeko edo erabili ohi baita.

Leku bakoitzak bere hizkera du, bere mintzaira berezia, ohiko bizimoduari atxikia. Herri honetan bizitza mahatsari itsatsita dago, antzinadanik, eta nork bere lana, beharra, du.





“

*Herri honetan
inoiz ez dut ikusi
emaztekirik
mahatsondoak
inausten”*

Eulalia Oribek ondo daki. Umetatik, eskolarean atera mahastira, aitari laguntzera, espergurar, desnietar y vendimiar, hauxek emakumezkoen lanak baitziren. Morisca, jorraia alegia, ez zuen inoiz erabili, ez eta helduzaroen bere mahastietan ere.

“Herri honetan inoiz ez dut ikusi emaztekirik mahatsondoak inausten”, gizonzkoen lana zen, zeren inausten “jakin behar baita”, XXI. mendean, dirudienez, berdintasun-aroa heldu da, eta Mikel Gil, Eulaliaren biloba lekuko, mahatsondoen inausketan neskarik asko ikusten dela baieztatzen baitu.

◀ *Haurrak haurtzainarekin eta txakurra, Bastidako Bakea enparantzan. 1900-1905 Argazkilaria: Oñate Reynares. Photo-Araba*

◀◀ *Eulalia ezkondu baino lehen senargaiarekin txangoan Senideen argazki-bilduma*

Beste ohitura batzuk

Eulalia Oribe XX. mendean Bastidan jaio zen, gurasoak eta asabak bezala, eta seme-alabak bilobekin bertan hazi dira. Mai-zterrak ziren, hots, eurena ez zen etxeoak; aitak zaintzen eta lantzen zituen mahastien jabearena zen.

Soroa eta mahatsak haren bizitzako zatiak izan dira, ezagutzen duen lurraren motorea eta funtsa izan dira.

Pobes abizena ugazabarena zen. Eulaliaren aitak soroan haientzat lan egiten zuen, maiz goizeko ordu bietan jaiki eta lurrari nitratoa eman behar eta gero lanaldiari ekin, eguzkitik eguzkira.

Ama Pobestarren etxean mirabe, eta, hauxe ere bai: eskuzapi bat erorita ere, haiek uga-zaba haiek jasotzeko makurtu ez. Beste garai eta bestelakoak ziren, aberatsen eta txiroen artean amildegi, arroila zegoen mendeak ziren.

Etxajaun eta etxandere zirenen ondoan herriko nagusiak, apaiza bat, kalean ikusiz gero eskuan mun eman behar zioten, ume zirelarik. Trukean: malbabiskozko goxoki bana.

Mikel, amamarekin berrogeita hamar bat urteko aldea, elkarren arteko eztabaidaren aldekoa da, ohitua ere nonbait, zeren bere etxean hitz eginez eta itun eginez erabakitzen baita, hik eta nik eta azkenan guk. Mende erdi horretan zenbat aldatu den, alde horretan.





“

*Apaizari eskuan
mun eman behar
zitzaion, ekandua
hala, halaxe zen”*

“

*Lehen, gizonak
hau zioenean hau
behar zen”*

Bost nesken artean laugarrena, aita zorrotzegi harentzat harro egoiteko bide eta aldi berean ardura. Gizon hertsia zen, arauak ezartean batik bat, eta hauen artean gogoan duen bat, alegia, gaueko hamarretan atea ixten zena; etxean egon behar, beraz.

Ez jairik ez basajairik edo erromeriarik inguruetakoko herrietan, are gutiago tabernara sartzea. Eulaliak ez zuen tabernarik zapaldu senargaiarekin joan ahal arte.

Jolasgarri bakarrak, enparantzan musika zegoenean, haientzat hamarretan amaitzen zena, eta zinema, txartela erosteko nahiko diru zegoenean.

Arratsoro errosario santua, aita sorotik itzultitakoan, eta orduan bai alabekin solas eta molas, bizitzako zerez--eta hitzaspertu gozoak.

Eulaliak aitor duenez, bere garai haietan, koskortu ahala mundua aurkitzen zue-
nean, emakumezkoek ez zuten erabakit-
zeko eskubiderik: “Gizonezkoak esan eta huraxe egin beharra”. Aitaren agintaritzza guztizkoa zen; eskurik inoiz ere gainean ipini ez zien arren, behar ere ez: “begirada bat aski”.



Mikel, amamarekin berrogeita hamar bat urteko aldea, elkarren arteko eztabaidaren aldekoa da, ohitua ere nonbait, zeren bere etxean hitz eginez eta itun eginez erabakitzen baita, hik eta nik eta azkenan guk. Mende erdi horretan zenbat aldatu den, alde horretan.

Eulaliaren etxeok ▲►





Mahats-bilketa senideen artean

▲ *Mahats-bilketako eskena. 1910
Argazkilaria: Oñate Reynares.
Photo-Araba*

Mikeli ardoa gustatzen zaio, zuria beltza baino gehiago, eta etorkizunean aitari eta sendiari mahatsondoen negozioan laguntzea gustatuko litzaiokeen arren, haren bidea beste bat da, ingeniariaritz informatikoarena. Hamasei urterekin behin ere ez du mahats biltzen jardun.

Bizitza oso aldatu da Eulaliak hamasei urteak zituenetik. Berari inoiz ez zaio ardoa gogoko, baina mahatsa zapaldu izan du salda ateratzeko, haren adineko beste askok bezala.

Orduan, mahats-bilketak senide-ahaideen artean egin ohi ziren, lehengusuak eta osaba-izebak ere laguntzaile, jaia zen.

XXI. mendean ezin daiteke, legeek ez dute baimentzen, eta kontratuak egin eta prozesua gehiegi garestitzen duten izapide batzuk egin behar dira. Askotan, ez du merezi lanean hastea.

Ortziari begira


Hala ere, bada aldatu ez den zerbait, hots, ortziari begiratu beharra, eta izozte batek “ona eramango duen” beldurra beti. Gerta litekeen txarrena, izotz berantiarrak hazten hasitako mahatsak ihartu edo zimeltzea. Diren guztiak ihartu eta gero berriz ere erne litezke, baina ezer ez da berdin, uztaren onena galdu da.

“Neguan egoten gara ongien, mahastia inausita dagoelako eta ez dagoelako ezer galtzeko arriskurik, baina apiriletik bildu arte, irailean edo urrian, euri, txingor, haize eta halakoen beldurrak beti”.

Duela berrogeita hamar urte eta gehiago, errogatibak egin ohi ziren, erreguak alegia, San Gines-i eta Andere Dona Luziari asko. Zerua lehengoa da, eta ardoa hondatu edo lorrinduko duen zer edo zer izan litekeen beldurra ere lehengo bera, uztatik uztara, honela ere, fedea ez, ez da lehengoa, eta erreguteak lehenean geratu dira, iraganaldian.

“

*Letaniak otoitz
egiten jaisten zen,
orain ez”*





▲ *Eulaliaren senideen bilduma*

“Bastidatik oinez igaiten zen, beribil bat ere ez, eta gazteek, gazte antzo, eskuetan zahatoa eta elkarri ardo egozten; neskek ez. Ondorean, letaniekin jaisten zen, alegia, otoizka, eta umeei txokolate ogiarekin emaiten zieten; meza egiten zen”.

Lehen, hara eta hona, beti oinez edo as-toaren gainean, eta Eulaliak aitari bazkaria

eramaiteko hiru kilometro ibili behar zuela gogoratzen du; mende erdi joanda, egiteko guztia beribilez, eta traktoreak lana arintzen, eta, bide batez, ehunka urtez geroztik mahatsez josiriko sorootan lan egiten duten gizon-emakumeen bizkarrak zaintzen.



▲ 1960 Ebro ibaia. Argazkilaria: López de Guereñu.
Photo-Araba

Ebro zitala

Ebro ibaia, ibai bero, Bastidako bizilaguentzat emankorra izan da beti, ur emaile handi, mahatsentzat ez ezik etxe koentzat eta jolasteko zein ikuzteko ere bai. Bastidan, bide-zidor batetik behera eta ibaian zagoz.

Gaszteak hor jolasean eta gozartuz beti, uhaldeetan edo uberetan igerika, dzanga eta dzinga. Behin, ordea, ez beharra, eta herriko jaietan: gazte bat ito zen. Aspaldi du, eta urteetan jendea ibaiari muzin egiten, uzkur eta beldur zegokion arren, gutika-gutika lehengo ohitura zahar haretara itzuliz joan da.


Hala ere, hemen Ebro zitala dela orok daki, ur-korrante edo uhaitzak dituela eta aurre-

tik eroan zaitzakeela ere jakina, barrene-rantz irensten duten zuloak, osin beltzak. Eulaliak ez du inoiz bainu hartu, ez basitu, “azken baten, zertarako sartu, igeri egiten ez dakit eta”, Mikel, ostera, bai, murgildu da.

Ikasturteko azken egunean, ogitartekoa eraman eta egun-pasa, ubera batean, ura bare dagoen lekuan, alegia. Herrian gero eta igeri-toki gehiago dago, bestalde, hiru-rogeita hamar bat edo, baina jabedunak gehienak; herriarenak ere badira, udalarenak, arriskurik bage gozatzeko lekuak, nahi duten guztientzat zabalik.



- 1 Upategiak nonahi
- 2 Jauregiak, jauretxeak eta 50 armarri
- 3 Enparantza monumentalak
- 4 Arkuak eta San Kristo
- 5 Patatak txorizoarekin eta saiheskitxoak



Bastida EZ INBES TEKOAK

- 6 Erremelluriko nekropolia
- 7 Matxinbraoko ibilbidea
- 8 Toloño mendirako igoera.

- 9 Artzainen jaia
- 10 Buradon Gatzaga

1

Upategiak nonahi

Toloño mendilerroaren babespean eta Ebro ibaiak urez elikatua, lurralde hau, Errioxan, ardantzarako lekurik egokienetakoa da; mahats ona eta izaera handikoa ekowitzeko baldintza ezinobeak ditu.

Mahasti aurkintza honetan Manuel Quintano jaio zen, eta 1786 inguruan, elizgizon zelarrik, ardoa egiteko teknika bordeldarrak ekarri zituen.

Hamabi upategi baino gehiago dago, gizon ikusluze hari omen eginik non-bait, eta ardorik onenak esperientziekin eskaintzen dituztenak.: Remelluri, Bodegas y Viñedos Labastida, Mitarte, Marqués de Carrión, Finca de La Rica, Bodegas Quintana, Señoría de Arana eta El hombre Orquesta, besteak beste.







2

Jauregiak, jauretxeak eta 50 armarri

Herri zaharreko harmurutik lekora, sendi aberatsak hedatu ziren, XVI. mendean, eta arkitektura aldetik oso etxe ederrak eraiki zituzten

Jauretxe itzel haiek gaur den egunean zutik diraute.

Hiribilduan barroko deritzon tankerako ikusgarriak badira, jauretxe batzuk esaterako, Larrazuriako arkutik hasita, Bakearen Plaza politeraino, atsegingaia.

Armarri larriak, hareharrian landuak, ederkiro nabaritzen dira, handikoi. Handiki-sendienak dira... Ramírez de la Piscina, Pobes, Albiz, Amurrio edo Zarate-tarrak.

Bastidan barrena, QR kodigoak ikusten dira, leku bereziak non eta azalpenak eskaintzeko, Paternina-tarren jauregian adibidez, bertan Napoleon-ek bi gauetz lo egin zuen, etzauntza gorri-gori batean, hain zuzen.

José Ignacio Zuñigak utzitako argazkia



3

Emparantza monumentala

Bakearen Plaza balio artistiko eta arkitektoniko ezin kalkulatzeko multzo batez inguraturik dago: Jasokundeko Andere Mariaren eliza, atalde bikainarekin, arte erlijioso

errenazentistaren bitxi bat da, eta Udaletxea dotorezia hutsa da, klasikoa eta barrokoa. Alde batean, Salazar-tarren jauregi-etxea dago.

Bastidako pertsonaiarik handienetako bat, Manuel Quintano jauna, ardogintza modernizatu zuen apaiz eta mahastiduna han jaio zen. Enparantzako tabernetako terrazarean batean esertzea, ardo ona dastatzearren, ia-ia beharkizuna da, lekuaren edertasunaz ere blai-blai egiteko.



4

Arku harrigarri bi eta San Kristo



Bastidaren goiko aldean, antzinako herresiko ateetarik bat zegoen lekuan, San Kristoren baselizari itsatsia, Toloñoeko Arku dago, herriaren alderik zaharrenean. Mendilerroari begira ikuspegia zirraragarria da. “El Cristo” gotor-elizetxea da, atalde erromaniko bikaina du kanpai-horwarekin.

Erretaula nagusia, Kristo Deunaren irudia ohol margoztatuan eta neurritz gizona betekoa ia, ikus-gozagarria da! Bastidan herritar guztiek guztiz maitatua. Beste arku, Larrazuriako Arku arranditsua, egun, Bastidaren beheko aldean dagozen jauretxe ondoko sargua da.

5

Patatak txorizoarekin eta saiheskitxoak



Bastidako Jatorrena izan daiteke, Arabako Errioxa guztian, patatak txorizoarekin eta aihen-txingarretan erretako saiheskitxoak otorduetan prestatzen nagusia.

1969az geroztik, euskal-errioxar sukaldaritzan berezitua, asteburuetan batik bat, jalez lepo.

Beste jatetxe batzuk ere badira Bastidan oturuntza gozo-gozoa eskaintzen dutenak, Ariño bat, antzinan ukuilu zen tokian, Alai beste bat, parrila eta guzti, besteak El Bodegón edo Begotxu.



6

Erremelluriko nekropoli misterioitsua

Erremellurin, mahastientzat leku berebizikoa, nekropoli kristau handi batek txunditu gaitu, 300 bat hilobi, lurrean barreiatzen direnak eta irudi bitxi bezain erakargarriak dituztenak.

Halabeharrez aurkitu zuten eta lurean dagoen zulo edo hutsune antropomor-

foak dira, ikusleen miresgarri; hilobi hutsetako hilerria da. X. mendean eraiki izan zela uste da. Handik hurbil, dolare bat bere harraska hutsekin, duela mila eta berrehun urte baino gehiago, ardoa egiten zelako zantzia.



7

Matxinbraoko ibilbidea

Bastidan jende guztiak egiten duen klasikoa da. 2 kilometro, Toloñoko arkutik San Gines-en baselizaraino; ikuspegi begi-betekoak eta Pedro Pablo bertako harri-lantzaileak eginiko irudiak ere ikusgarri.

Bitxikeria bat, nondik sortu ote izen hori? Matxinbrao 623 metroko mendi kaxkarra da, Toloñoren magalean. Hamar bat mendi-ibilbide baino gehiago inguruotan, zuinez ondo markatuak, izadiaren edertasuna ezagutuz gozatzearren.

8

Toloñorako igoera

Agian, Arabako Errioxako mendi-behatokirik politenetako bat. 1.277 metro goi, igoera zorrotza da, baina, ordainetan, Ebro ibarreko ikuspegi zinez bihotz-jasogarria eskaintzen du, eta han, goialdean, ustebageko bat: antzinako monasterio baten herexak edo aztarrenak. 9 kilometroko ibilaldia, beti goiti, San Gines-en basiliza ondoan hasten da. Toloñok beti, parrau

edo antzekoentzat egara egokia, kristau bakarti geldikoiak erakarri izan ditu, eta San Jeronimoren baldernakoak egon omen ziren orain aurriak baino ez den elizetxe horretan. Karlistaldian suntsitu izan zen, eta hor gelditu diren harri landuek Erdi Arora garamatzate, irudimenez hegan baino ez bada ere.





9

Katximorroren artzainen dantza

Herrian maiteen eta errotuenetako jai bat artzainen dantza da, Katximorro gidari, aitengandik semeengana iragaiten joan ohi dena. Bastidan eguberrietan beti egiten den dantza hau antzina-antzinadanik datorrela esan beharrik ez, artzaintza lanbide garrantzitsua baitzen. Jesus haurraren jaiotza ospatzearren, dantzan egin eta berakatz-zopa jaten da.



10

Buradon Gatzaga

Buradon Gatzagara iristean, herri tikia harresi handi baten barruan ikusten da.

1262an eraikia, Gaztelako erregeak agindurik, orduan hiri estrategikoa, politika eta ekonomiagatik, baitzen.

Iturburu gazi bat ei zegoen, orain haren ez, aberastasun iturri, eta gizarte hura nola garatu eta bilakatu zen argi ikusten da, ederki landutako harrizko etxe dotoreetan.

Oñatiko Kondeen Jauregia, Enparantza Nagusian, orain aurriak baino ez da, behiala guduzko jaunen tegia izanik.

Haren ondoan eliza, Sortze Garbiari eskainia, XVI. mendekoa, aurreko baten gainean eraikia, eta Erdi Aro haretako karridak eta larrainttoak dira herri guztia.

Bastida zenbakietan

Herriak

Bastida ·
Buradón Gatzaga

Beste datu batzuk

1.604 bizilagun - 2024
8.000 bizilagun (XVIII.m)
50 armarri
12 upategi
5 aloka-toki
13 taberna-jatetxe

Bastida

- ◀ ● 50 Km ● ▶ Gasteizera
- ◀ ● 91 Km ● ▶ Bilbora
- ◀ ● 143 Km ● ▶ Donostiara
- ◀ ● 122 Km ● ▶ Iruñera



Arabako Herriak

Amamengandik bilobengana

Ezinbestekoak, isilpekoak, historia eta ohiturak, ibilbideak eta gastronomia

Gure herrien lehen-geroa protagonisten bitartez, bertan bizi eta lan egindakoek euren oroitzapenak utzi dizkigute, eta lehen haretatik gerorantz goaz. Amamek ohiturarekin ekanduak biziarazi dituzte, baserri zein landerri, gure Araba honetan.

Arabar askok bere herriaren historiari bere istorioa erantsi dio. Oroitzapenen zaintzaile, jakinguraz beteak eta eskuzabalak, isilak maiz, lurralde eder honen nondik-norako guztien berri eman digute.

Askotariko Araba, tokian-tokian berezia eta, honela ere, jendez eta bizierez batua.

Laguntzaileak:



Gehiago jakitearren gure web-gunean

